



## **1.2. ETA 3. ATALAK**



### **ULERMENA**

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zein bi kaletakoak ziren borrokan ari ziren mutikoak?

---

---

2. Zein itxura zeukan Jimmiek?

---

---

3. Nork lagundu zion Jimmieri estuasun hartatik irteten?

---

---

4. Aita agertu zenean, zer egin zuen honek?

---

---

5. Nolakoa zen Jimmie eta bere familiaren auzoa? Zelako giroa zegoen bertan?

---

---

6. Zer esan zion arrebak Jimmieri borrokan aritu zela ikusi zuenean? Eta zer egin zuen Jimmiek?

---

---

7. Etxeratu zirenean, amak zer egin zuen Jimmie zaurituta zegoela ikustean?

---

---



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



8. Nortzuek afaldu zuten? Nork prestatu zuen afaria eta zer prestatu zuen?

---

---

9. Zergatik joan zen Jimmie beheko andrearen etxera?

---

---

10. Zertara bidali zuen beheko andreak Jimmie? Eta zer gertatu zitzaion?

---

---



## GRAMATIKA

1. “Handik goitik harrika defendatzen ari zen Rum Alley kalea, Devil’s Row kaleko mutikoen aurka. Haiek harri piloaren inguruan zebiltzan, goiko mutikoari oihuka eta harrika” (1.orrialdean)

“Jimmie horrela ikusita, Devil’s Row kaleko mutikoak bibaka eta saltoka hasi ziren, pozaren pozez, beren garaipena ospatzeko” (3.orrialdean)

Lurrean egon zenean, Devil’s Row kaleko mutikoek inguratu egin zuten Jimmie. Berak orduan beso batez aurpegia babestu eta kolpeka eta biraoka jarraitu zuen zoro baten pare” (2.orrialdean)

**KA:** Maiz gerundioa adierazteko, -KA atzizkiaz baliatzen gara. Gehienetan ekintza errepikakorrek adierazteko erabiltzen da.

- Pertsona bat behin eta berriz harriak botatzen badabil, zertan dabil? \_\_\_\_\_
- Eta tiroak botatzen badabil? \_\_\_\_\_
- Eta oihu egiten? \_\_\_\_\_
- Ostikoak ematen? \_\_\_\_\_
- Aharrausiak egiten? \_\_\_\_\_
- Bueltak ematen badabil? \_\_\_\_\_
- Musuak ematen badabil? \_\_\_\_\_
- Zurrungak egiten badabil? \_\_\_\_\_
- Eta txandak egiten? \_\_\_\_\_



## Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



2. “Goiko mutikoak guztiz gorrituta zeukan aurpegia, haserrearen haserrez, eta besteei biraoka zebilen” (1.orrialdean)  
“Jimmie horrela ikusita, Devil’s Row kaleko mutikoak bibaka eta saltoka hasi ziren, pozaren pozez, beren garaipena ospatzeko” (3.orrialdean)  
“Mutiko taldea berehalaxe sakabanatu zen, beldurraren beldurrez” (6.orrialdean)

Egitura hauek eratzeko, errepikatutako lehen hitza **NOREN** kasuaren mugatu singularrean deklinatzen da eta bigarrena **ZEREZ** kasuaren mugagabea.

Egitura hau, aditz partizipioarekin ere erabiltzen da maiz. Adibidez:

Eginaren eginez, azkenean lortu dugu.

Erabiliaren erabiliaz, hondatu egin da.

Erantzun ondorengo galderei parentesi artean dagoena erabiliz:

- Nola hil da? (Zahar) \_\_\_\_\_
- Nola gaixotu da? (Hotz) \_\_\_\_\_
- Nola zeuden ama ikusi dutenean? (Poz) \_\_\_\_\_
- Nola lortu du lana amaitzea? (Ekin) \_\_\_\_\_
- Zer dela eta joan zen? (Lotsa) \_\_\_\_\_
- Zer dela eta bota zuen lurrera? (Amorrua) \_\_\_\_\_
- Zer dela eta ez ziren igo tontorreraino? (Neke) \_\_\_\_\_
- Nola hil zen? (Min) \_\_\_\_\_

3. “Txo, guk nahi dugun egunean, jo eta txikitu egingo dugu Devil’s Row kale madarikatu hori” (5.orrialdean)  
“Jo eta zapaldu oilo busti horren burua, Jimmie-esan zion Petek, mutil gazte indartsuak” ((5.orrialdean)  
“Jimmie, oraintxe bertan altxatzen ez bazara, jo eta bertan larrutuko zaitut!” (6.orri.)  
“Ixiltzen ez bazara, jo eta bertan txikituko zaitut!” (8. orrialdean)

**Jo eta hautsi; jo eta astindu; jo eta txikitu; jo eta apurtu; jo eta larrutu; jo eta zapaldu ....**

Indartu egiten dute jo aditza.



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



Entzun hurrengo abestia eta bete itzazu hutsuneak:

abestia

Zezenak dira, beltz-beltzak dira,

harrapatzen bazaitu,

harrapatzen bazaitu,

---

---

Zezenak dira, adar zorrotza,

harrapatzen bazaitu,

harrapatzen bazaitu,

---

---

4. “Halako kolpe gogorra hartuta, neskatoa lurrera erortzeko zorian egon zen”  
(11.orrialdean)

“Seme-alaben arteko liskarra ikusita, aita haiengana joan zen haserre” (11.orrialdean)

“Halako zalaparta entzunda, beheko solairuan andre zahar batek atea zabaldu zuen”  
(16.orrialdean)

**-TA/DA:** Partizipio honek ekintza burutuak adierazten ditu eta denborazko balioa du.

Berridatzi honako esaldiak TA/DA erabiliz:

- Lelokeria hori entzun zuen eta haserretu egin zen.

---

---

- Ateari kolpe bat eman zion eta ospa egin zuen.

---

---

- Ezetz esan zidan eta telefonoa eskegi zuen.

---

---

- Ezkondu eta gero elkarrekin bizi izatera joan ziren.

---

---



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



5. “Halako kolpe gogorra hartuta, neskatoa lurrera erortzeko zorian egon zen”  
(11.orrialdean)

## **-T(z)EKO ZORIAN/-T(z)EAR**

Gertatzeko puntuan dagoen baina gertatu ez den ekintza bat adierazten du. Adibidez:

- Pozoina hartu eta hiltzeko zorian egon zen.
- Pozoina hartu eta hiltzear egon zen.

Pareka itzazu esanahi bera duten esaldiak:

- Utzi zenidan liburua ia-ia bukatu dut
- Trena irtetera zihoan Maren iritsi zenean
- Gure aitona laster hilko da.
- Ez puztu gehiago puxika hori bestela lehertu egingo da eta
- Uretara jausi eta ia-ia ito egin zen

- Uretara jausi eta itotzeko zorian egon zen
- Utzi zenidan liburua bukatzeko zorian nago
- Gure aitona hiltzeko zorian dago
- Trena irteteko zorian zegoen Maren iritsi zenean
- Ez puztu gehiago puxika hori bestela lehertu egingo da eta

6. “Baina orain hartu katilu hau eta zoaz garagardo bila beheko tabernara”  
(18.orrialdean)

**-(R)EN BILA:** Posposizio hau NOREN kasuarekin erabiltzen da mugagabeen izan ezik, mugagabeen kasu-markarik gabe jartzen da. Adibidez:

- Senarraren bila: Nire senarraren bila nabil
- Senarren bila: Nire lagunen senarren bila
- Senar bila: Ez daukat senarrik eta ezkondu nahi dudanez, senar bila nabil

Eman erantzuna hurrengo galderei:

- Lagunekin joan zara Bilbora eta despistatuta galdu egin zara. Noren bila joango zara? (Lagun) \_\_\_\_\_
- Lagunak egiteko asmoz sartu zara interneten. Noren bila ari zara? (Lagun) \_\_\_\_\_
- Zure laguna mendian galdu da eta herriko jendea haren bila atera zarete. Noren bila joan zarete?(Lagun) \_\_\_\_\_
- Langabezia zaude eta lanean hasteko irrikitan. Zeren bila ari zara? (Lan) \_\_\_\_\_



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



- Zure gurasoen etxetik alde egiteko asmoa duzu eta alokairuan bizitzera joango zara. Zeren bila ari zara? (Pisu) \_\_\_\_\_
- Bart euria egin du eta goizean goiz mendira abiatu zarete. zeren bila joan zarete? (Perretxiko) \_\_\_\_\_
- Lagun baten etxean jai bat antolatu dute eta bere auzora joan zarete. Ez duzue bere etxea aurkitzen. Zeren bila ari zarete? (Etxe) \_\_\_\_\_



## MINTZAMENA

1. Atal hauetan, mutikoak beraien artean borrokan agertzen zaizkigu. Zu txikitan, borrokan aritzen zinen lagunekin, neba-arrebekin, lehengusu-lehengusinekin, auzokoekin? Zein izaten zen arrazoa?
2. Zigorrik jasotzen zenuten? Nolako zigorrak izaten ziren?
3. Non jolasten zineten txikiak zinetenean?
4. Zertan jolasten zineten?  
Ondorengo jolasetatik zeinetan jolasten zineten?
  - Puxtarrika
  - Goman
  - Ziban
  - Inkean
  - Ezkutaketan
  - Sokasaltoan
  - Panpinetan
  - Harrapaketan
  - Tortoloxetan
  - Txapetan
5. Asko aldatu da umeen bizimodua azken urteotan? Zer aldatu da?
6. Eskolaz kanpoko ekintzak egiten zenituzten? Zeintzuk? Zuek aukeratuak ala gurasoek aukeratuak izaten ziren?



## 4. 5. ETA 6. ATALAK



### ULERMENA

Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Jimmiek laster utzi zion mutiko izateari eta oso laster hasi zen lanean.  
 EGIA     GEZURRA
2. Jimmieri izugarri gustatzen zitzaion dotore jantzita zihoan jendea.  
 EGIA     GEZURRA
3. Gurdi-gidari lanean hasi zen.  
 EGIA     GEZURRA
4. Jimmie guztiakin haserretzen zen, beste gidariekin, polizikoekin eta jende xehearekin.  
 EGIA     GEZURRA
5. Oso zakarra zen guztiakin suhiltzaileekin izan ezik.  
 EGIA     GEZURRA
6. Jimmiek lanean hasteko agindu zion Maggiri eta hau kontserba lantegi batean hasi zen lana.  
 EGIA     GEZURRA
7. Lantegi hartako produktuek ospe txarra zeukaten.  
 EGIA     GEZURRA
8. Jimmiek txikitako lagun batekin egin zuen topo eta honek boxeo borroka bat ikustera gonbidatu zuen arren, ezetz esan zion.  
 EGIA     GEZURRA
9. Maggie Peteren dotoreziaz liluratuta geratu zen baina bere hitz egiteko modua ez zitzaion batere gustatu.  
 EGIA     GEZURRA
10. Pete harrokerietan ibili zen Maggiren aurrean.  
 EGIA     GEZURRA
11. Hurrengo egunean itzuli zenean, Petek Maggie ikuskizun batera eraman zuen.  
 EGIA     GEZURRA
12. Ikuskizunera joan ziren egunean, Maggiren ama mozkortuta zegoen.  
 EGIA     GEZURRA





## GRAMATIKA

1. “Tommie txikia hil egin zen. Zerraldo beltz txiki batean lurperatu zuten”  
(23.orrialdean)

Aditz hauek **-RA** kasu marka daraman izenetatik eratorriak dira. Adibidez:

- kaleratu, urrutiratu, aineratu

Nola esango zenituzke hurrengoak?

- Etxera joan: \_\_\_\_\_
  - Ohera joan: \_\_\_\_\_
  - Putzuan sartu: \_\_\_\_\_
  - Ahora eraman: \_\_\_\_\_
  - Itsasora atera: \_\_\_\_\_
  - kanpora atera: \_\_\_\_\_
  - Atzerrira joan/bidali: \_\_\_\_\_
  - Herrira joan: \_\_\_\_\_
  - Poltsikoan sartu: \_\_\_\_\_
  - Hegan doana lurrean pausatu: \_\_\_\_\_
2. “Jimmiek goizegi utzi zion mutikoa izateari, eta gertatu zenean, begirada gogortu zitzaion” (23.orrialdean)  
“Maggie bere pentsamenduetan murgildu zen, Peteri begiratzeari utzi gabe” (34.orri.)

-T(z)EARI UTZI: Zerbait egiten nuen eta orain ez dut egiten. Nor-nori-nork adizkiekin erabiltzen da. Adibidez: Erretzeari utzi diot, mezatara joateari utzi zion...

Imajina ezazu abenduaren 31 dela eta asmoak dituzula hastera doan urterako.  
Zer egiteari utziko diozu urte berrian eta zer egiten hasiko zara?

---



---



---



---





## Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



3. “ Haren ustez, poliziakoek sekulako gorrotoa zioten berari, eta jende gehienaren asmoa bera izorratzea besterik ez zen” (25. orrialdean)  
“Horma guztiak lohi-lohi zeuden, altzari gehienak apurtuta, eta etxe osoa anabasa zikin bat besterik ez zen”

**BESTERIK EZ:** Esapide hau “Gehiagorik ez, bakarrik” adierazteko erabiltzen da, hau da, balio murriztailearekin. Maiz, besterik eta ez partikula elkarren ondoan agertzen dira, baina banatuta ere ager daitezke. Adibidez:

- Bat besterik ez dut aurkitu
- Ez dut bat besterik aurkitu

Idatzi ondoko esaldiak besterik ez erabiliz:

- 4 lagun elkartu ginen, ez zen beste inor agertu

---

- Gure etxean 2 lagun soilik bizi gara

---

- Nik entzun dudana esan dut, ez dut beste ezer esan

---

- Hor ikusten diren liburuak soilik dira nireak

---

- Ez daukat gehiago, hor daudenak dauzkat.

---

4. “ Urte dezente eman zuen lanik egin gabe, eta denbora horretan erdeinuzko keinu moduko bat agertu zitzaion aurpegian” (23.orrialdean)  
“Bakoitza josteko makina baten aurrean jarrita, neska haiek egun osoa ematen zuten alkondarak josi eta josi” (30.orrialdean)  
“Azkenean, kaleko argi keinukarien azpitik igaro ziren eta urruneko itzalen artean desagertu ziren” (36.orrialdean)  
“Lanean ari zenean, Peteren bizimodua nolakoa izango zen asmatzen ematen zituen orduak” (39.orrialdean)  
“Maggieren amak whiskia edaten eman zuen egun hartako goiz osoa” (39.orrialdean)  
“Hara-hona ibiltzen ematen duzu zuk eguna!” (40.orrialdean)



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



**PASATU aditza:** Euskaraz gehiegi erabiltzen dugu eta ahal dela kasu bakoitzerako aditz egokiagoa topatuko dugu.

- Gau osoa PASATU dut ikasten- Gau osoa EMAN dut ikasten
- Ez dakit zer PASATZEN zaidan- Ez dakit zer GERTATZEN zaidan
- Bi urte PASATU dira- Bi urte IGARO dira

Pasatu aditzaren orde bestea bat jartzen saiatuko zara:

- Gau osoa esna pasatu genuen. \_\_\_\_\_
- Urte ugari pasatu dira ezagutu zintudanetik. \_\_\_\_\_
- Zer moduz pasatu zenuten atzo? \_\_\_\_\_
- Zer pasatu zitzaion atzo zure aitari? \_\_\_\_\_
- Zenbat denbora pasatzen duzu lanerako bidaian? \_\_\_\_\_
- Gauza piloa pasatu zitzaigun oportetan. \_\_\_\_\_



## MINTZAMENA

1. Jimmieri ez zitzaizkion gorbatadunak gustatzen; Maggie, aldiz, liluratuta gelditu zen Peteren dotoreziaz. Zuk gustuko duzu jendea dotore janztea? Zer da zure ustez dotorezia?
2. Lanbide batzuetan derrigortuta daude gorbata edo bestelako jantziak eramatera. Zer deritzozu horri?
3. Jimmiek gurdi gidari egiten zuen lan eta beti haserre zebilen. Guztiekin haserretzen zen bere lanean, beste gidariekin, polizikoekin eta jende xehearekin. Ezagutzen duzu bere lanean beti haserre dabilenik? Zergatik ote? Zail da gustoko lana izatea?
4. Jimmie zakarra zen guztiekin baina suhiltzaileak begirune handiz tratatzen zituen. Berak bihotzez miresten zituen gizon eta zaldi ausart haiek. Zein lanbide miresten duzu zuk? Zergatik?
5. Maggie jantzigintzan ziharduen. Lantegi hartan hogeita bat neska lan egiten zuen egun osoan zehar eta erdi ilunpetan. Gaur egun ere entzuten da horrelakorik. Zer iritzi daukazu honi buruz?
6. Maggieren lantokian guztiak ziren emakumeak. Badaude tradizioz emakumezkoenak izan diren lanbideak eta gizonzkoenak izan direnak. Aipatuko zenituzke ezagutzen dituzunak?



## **7. 8. ETA 9. ATALAK**



### **ULERMENA**

Ondorengo galderetan aukera ezazue erantzun egokia:

1. Maggie eta Pete musika aretora sartu zirenean,
  - a. orkestra balts bat jotzen ari zen eta aretoa erdi hutsik zegoen.
  - b. orkestra balts bat jotzen ari zen eta aretoa jendez gainezka zegoen.
  - c. orkestra balts bat jotzen ari zen eta aretoan Frantziako sukaldariak zeuden.
2.
  - a. Langileek trajedunek besteko gastua egiten zuten.
  - b. Trajedunek langileek baino gehiago gastatzen zuten tabakotan.
  - c. Trajedunek langileek baino gastu handiagoa egiten zuten.
3.
  - a. Maggie ez ezik Pete ere agertokira begira egon zen begirik kendu gabe.
  - b. Ikuskizunak iraun zuen bitartean, Pete Maggieri begira egon zen garagardoa edaten.
  - c. Pete ikuskizunari begira egon zen; Maggie, ordea, Peteri begira egon zen.
4.
  - a. Maggie ez zuen batere gustuko bere lana eta han gaztaroa galtzen ari zela uste zuen.
  - b. Maggie ez zuen gustuko bere lana lankideekin txarto konpontzen baitzen.
  - c. Maggie ez zuen gustuko lantegiko ugazaba baina bai, ordea, bere lana.
5.
  - a. Peteri museoak izugarri gustatzen zitzaizkionez, sarritan eramaten zuen Maggie.
  - b. Museoetara joaten ziren eta Maggieek primeran pasatzen zuen. Pete, ordea, izugarri aspertzen zen arteari begira.
  - c. Petek, nahiago zuen museoetan bere erara entretenitu eta kuadroak lekuz aldatzen zituen.
6. Antzerkia ikustera joaten zirenean,
  - a. ikusleek ez zuten bereizten ona eta txarra.
  - b. ikusle gehienak bertutearen alde agertzen ziren.
  - c. ikusle gehienak bertutearen aurka agertzen ziren.
7. Mary tabernatik bota zutenean,
  - a. Auzokoek eraman zuten etxera eskaileretan topatu zutelako.
  - b. Maggieek aurkitu zuen atarian lotan eta etxeratzen lagundu zion.
  - c. Jimmie ikusi zuen eskaileretan eta etxera eramaten saiatu zen.



## GRAMATIKA

- I. “Zerbitzariak alde batetik bestera zebiltzan, bezeroei garagardoz beteriko pitxarrak eramaten...” (41.orrialdean)  
“...eta beste areto batzuetan erositako zigarro garestiak erretzen zituzten” (42.orri.)  
“...eta agertokian gonadun traje arrosa bat jantzitako neska bat agertu zen” (43.orri.)

**TA/(R)IK:** Partizipioari (ikusitA, ikusitK/ eginDA, eginIK) -KO atzizkia erantsiz lortutako formak erabiltzen ditugu erlatiboa egiteko. Ekintza burutuak adierazteko erabiltzen da.

Egin duDAN guztiak ez du ezertarako balio.

- Edindako/eginiko guztiak ez du ezertarako balio.

Erlatibo forma hau erabili ahal duzun guztietan:

- Gaur goizean egin dugun pastela txakurrak jan du.

---

- Ezagutzen dugun mutilari loteria suertatu zaio.

---

- Sari hauek lasterketa irabazi dutenentzat ekarri dituzte.

---

- Jaietara etortzen den jendea ez da hemengoa.

---

- Amak esan duenari kasu egin.

---

- Esan duzun guztia gezurra da.

---

- Uste zuten mutil horrek edan zuen freskagarria ez zela edangarria.

---

- Nire senarrak ez du batere gustoko erosten dudana arropa.

---

- Irabazi zuten partidari esker, Kopa irabazi zuten.

---



2. “Sabeliztunak panpinei doinu tristeak kantarazten zizkien eta Irlandari buruzko txistek kontarazten zizkien.” (45.orr)  
“...eta etengabe janzen eta eranzten zuen barruan zeraman ileorde gorria, ikusleei barre eragiteko” (47.orr)

**ARAZI/ERAGIN ADITZ ERAZLEAK:**

Aditza NOR bada-----Aditza+arazi NOR-NORK

NOR-NORK bada--Aditza+arazi NOR-NORI-NORK

- Jonek Ane etortzera BEHARTU du atea zabaltzera.
- Jonek Ane ETORRARAZI du atea zabaltzera.
- Mikelek egitera BEHARTU nau
- Mikelek EGINARAZI dit

**\* Aditz hauekin:**

Izena+egin+ARAZI----- Izena+ERAGIN

- Mirenek barre egitera BEHARTU nau
- Mirenek barre ERAGIN dit

Erantzun honako galderak:

- Txikitan amak zer eginarazten zizun? \_\_\_\_\_
- Euskaltegian zer eginarazten dizute? \_\_\_\_\_
- Zure dietistak zer eginarazten dizu? \_\_\_\_\_
- Eta zure bikoteak? \_\_\_\_\_

Berridatz itzazu ondorengo esaldiak ARAZI/ERAGIN erabiliz:

- Ez duzu uste gona hori eroatera behartuko zaituztenik.  
\_\_\_\_\_
- Kanean poliziek besoak jasotzera behartu dute mutila.  
\_\_\_\_\_
- Kanta horrek nire lehen amodioa ekarri dit gogora.  
\_\_\_\_\_
- Ez al zaitu egoera horrek gauza askotan hausnartzera bultzatu?  
\_\_\_\_\_
- Bulegoan paper asko egitera bultzatu naute.  
\_\_\_\_\_
- Medikiak gure ama ohean gelditzera behartu zuen.  
\_\_\_\_\_



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



- Nekatuta ikusi du eta sofán esertzera gonbidatu du.

\_\_\_\_\_

- Txikitan amamak platerean zegoen guztia jatera behartzen ninduen.

\_\_\_\_\_

3. “Halako eszenak ikusiz, ikusleak estasi moduko batean murgiltzen ziren.” (54.orri.)  
“Gero, hau gaineratu zuen, alabari zorrotz-zorrotz begiratuz” (62.orrialdean)

**-Z GERUNDIOA:** Forma hau partizipioari erantsiz lortzen da. Esanahia bitartekoa, instrumentoa, bidea adieraztekoa da.

NOLA (bidea, bitartekoa)

- Hitz eginez ikasiko dut euskara.
- Pastela janez lodituko da.

Erantzun honako galderei aurreko forma erabiliz:

- Nola ikasten dugu oinez? \_\_\_\_\_
- Nola sartu dira etxean? \_\_\_\_\_
- Nola argalduko zara? \_\_\_\_\_
- Nola sartu zuen gola futbolariak? \_\_\_\_\_
- Nola heldu zen txirrindularia mugara? \_\_\_\_\_
- Nola ikasten da bizikletaz ibiltzen? \_\_\_\_\_
- Nola heltzen zara ezagutzen ez duzun toki batera? \_\_\_\_\_
- Nola pizten da ordenadorea? \_\_\_\_\_



## MINTZAMENA

Atal hauetan, alkoholismo arazoa agertzen da. Komentatu zuen artean honako galdera hauek:

1. Gaur egun gure gizartean alkoholismoa gazteen artean ematen omen da. Zer deritzozu?
2. Lagunekin botiltzarra egin/egiten duzu? Zergatik uste duzu jendeak egiten duela?
3. Zein desberdintasun dago txikiteo eta botiltzarraren artean?
4. Txikitoak hartzea ohitura bat izan da gure artean. Lagunekin egoteko, kantatzeko, lanari buruz hitz egiteko....Mantendu beharreko ohitura dela uste duzu?
5. Zertarako edaten du jendeak? Arazoak ahazteko? ligatzeko? Zer deritzozu?
6. Botiltzarrak beste arazo batzuk dakartza: zikinkeria, zarata.. Zer deritzozu?





## 10.11. ETA 12. ATALAK



### ULERMENA

Erantzun hurrengo galderak:

1. Nork ikusi zituen eskaileretan Maggie eta Pete? \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_
2. Zer jakin nahi zuen Maggie? Zer galdetu zion Peteri eskaileretan? \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_
3. Amak Maggie-ren kasua beste neska batekin konparatzen du. Nor zen? \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_
4. Amak negarrez zer egiten du?
  - a. Maggie goraipatu
  - b. Jainkorari bere alaba madarikatzeko eskatu.
  - c. Harrikoa egin
5. Auzokide baten ustez,
  - a. bere alabari mutila kentzen saiatu zen Maggie.
  - b. azterketa prestatzen lagundu zion.
6. Nora joan zen Jimmie Peteren bila? Bakarrik joan zen? \_\_\_\_\_
7. Zelan bukatu zen Jimmieren bisita? \_\_\_\_\_
8. Nortzuk hurbildu ziren zarata hotsa entzunda? \_\_\_\_\_
9. Nork lortu zuen ihes egitea? \_\_\_\_\_
10. Nora eraman zituzten atxilotuak? \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_
11. Petek oso ondo tratatzen zuelako, zer erabaki zuen Maggie?
  - a. Amari den-dena kontatzea
  - b. Dantzari joatea
  - c. Peterekin biltzera joatea





## GRAMATIKA

### I. “Hori bai kolpe ederra, andrea!” (60.orrialdean)

#### **HARRIDURA PERPAUSAK:**

- HAU, HORI...erakusleak. Izenekin erabiliko dugu. Aditza jarriz gero, -(E)NA bukaeran.  
HAU (da) hotza! / HAU (da) hotza egiten duENA!
- NOLAKO (ZELAKO). Hau ere izenekin. Aditz laguntzaileari -(E)N lotuko diogu. ZELAKO aurpegi ederra! / ZELAKO aurpegi ederra daukazuN!
- BAI. Adjetibo eta adberbioen aurrean. Aditz laguntzailea lotuz gero, -LA.  
BAI gaiztoa! / BAI gaiztoa dELA!
- ZEIN. Hau ere adjetibo eta adberbioekin. Aditz laguntzailea jarriz gero, -(E)N.  
ZEIN emakume dotorea! / ZEIN emakume dotorea deN!

Zuzendu akatsak ondoko esaldietan baldin badaude:

- Nolako aurpegia duzuna! \_\_\_\_\_
- Hauek komeriak! \_\_\_\_\_
- Zein itsusiak direla! \_\_\_\_\_
- Bai ederra dela! \_\_\_\_\_
- Hori poza eman diogun! \_\_\_\_\_
- Bai esku politak dituzula! \_\_\_\_\_
- Nolako eguraldi ederra egiten baduela! \_\_\_\_\_
- Pentsa nolako amorrua eman didala! \_\_\_\_\_
- Hau etxe polita bada! \_\_\_\_\_
- Hau poza dudana! \_\_\_\_\_

### 2. “Kokolotzat hartzen nauzue, ala?” (71.orrialdean)

#### **-TZAT** (hartu, eman, jo, eduki,...)

Mugagabean deklinatzen da eta 2 adiera ditu:

Semetzat hartu dute

a) Semea zela pentsatu dute

b) Beren semea izateko hartu dute



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



Jarri dagokion hitza hutsuneetan:

- Mikel beti \_\_\_\_\_ TZAT hartu dugu baina oso azkarra da.
- Hau guztia \_\_\_\_\_ TZAT ematen dut, ez dut berriro azalduko.
- Mozkortuta zegoen eta farola \_\_\_\_\_ TZAT hartu zuen.
- Mikelek oso \_\_\_\_\_ TZAT du bere burua baina leoa da.
- Bere janzkeragatik \_\_\_\_\_ TZAT hartu zuten baina mozarrotuta zegoen.
- Betaurrekoak galdu zituen eta \_\_\_\_\_ TZAT hartu zuen lisagailua.
- Badiolak \_\_\_\_\_ TZAT jo zuen Irujoren kontrako partida.

3. “Oso polita zara Maggie. Eta maitagarria ere bai.” (78. orrialdean)  
“Gizon ugari ere bazegoen aretoan” (83.orrialdean)  
“Jimmiak ere ez zuen arrebaren portaera ulertzen” (80. orrialdean)

## **ERE: Markatu nahi dugun hitzaren atzean jartzen da.**

- Itziar gaur lanera joan da. Maite ere lanera joan da edo Maite ere bai.
- Itziar gaur lanera joan da. Bihar ere joango da edo bihar ere bai.
- Itziar gaur lanera joan da. Kafe Antzokira ere joan da edo Kafe Antzokira ere bai.

Aditza markatu nahi denean aditza errepikatu edo egin jarri beharko dugu (eta aspektua hauek markatuko dute)

- Itziarrek afaldu zuen. Kantatu ere kantatu/egin zuen
- Bihar zuzendaria ikusiko dugu. Agurtu ere egingo/agurtuko dugu.

ERE aditz trinko baten aurrean suertatzen denean, aditzari BA aurrizkia lotuko diogu

- Itziar ere BAdator
- Hark ERE BAdauka

Zuzendu hurrengo esaldietako akatsak baldin badaude:

- Nire lagunak ibili ziren ere Londresen bost egun horietan. \_\_\_\_\_
- Udaltzainak ere bai agertu ziren kalean. \_\_\_\_\_
- Bilbotarrok ere dakigu hori. \_\_\_\_\_
- Ere Xabi etorriko da oporretan. \_\_\_\_\_
- Zuek ere bai egin ahal duzue. \_\_\_\_\_
- Neuk ere badaukat kd hori. \_\_\_\_\_
- Nire lagunak egon ziren ere leku horretan. \_\_\_\_\_
- Amak ere bai daki nik beste gai horri buruz. \_\_\_\_\_



## **MINTZAMENA**

Atal hauetan maitasuna agertzen zaigu. Komenta itzazue ondorengo galderak zeuen artean:

1. Maiteminduta zaudela esatea modan dago?
2. Maitemindu zara inoiz? Maiteminduta zaude?
3. Gaur egun harremanak egiteko medio desberdinak dauzkagu, adibidez internet. Zer deritzozu?
4. Posiblea da maitemintzea pertsona zuzenean ezagutu gabe? gertatu zaizu inoiz holakorik? ezagutzen duzu kasuren bat?
5. Entzun duzu inoiz “maitasun platoniko” hitza? Zelan definituko zenuke? Izan duzu? Nerabeen kontua da edo nagusitan ere gerta daiteke?
6. Ikerketa baten arabera maiteminduta egoteak bizitza luzatzen du eta maiteminduta zoriontsuago bizi gara. Zer deritzozu horri?
7. Esaldi ospetsu batek dio maitasunetik gorrotora pausu bat baino ez dagoela. Ados zaude?



## **13. 14. ETA 15. ATALAK**



### **ULERMENA**

Jar ezazu ondorengo galderak EGIA ala GEZURRA diren:

1. Amak ezin zuen alabaren portaera ulertu eta behin eta berriro galdetzen zion bere buruari zergatik apurtzen zituen etxeko altzariak.  
 EGIA     GEZURRA
2. Jimmie oso ondo ulertzen zuen Maggie-ren portaera, maiteminduta zegoen eta.  
 EGIA     GEZURRA
3. Ama mozkortuta egoteagatik atxilotzen zutenean, alabaren kontua aipatzen zien epaileei.  
 EGIA     GEZURRA
4. Zerbitzariak bezeroren bat oso mozkortuta ikusten zutenean, ez zioten gehiago ateratzen eta etxera bidaltzen zuten.  
 EGIA     GEZURRA
5. Petek adi-adi entzuten zituen Nellieren hitz guztiak eta beraren begiek dir-dir egiten zuten neskari begira.  
 EGIA     GEZURRA
6. Pete Nellierekin tabernatik atera zen, baina 10 minutu ondoren Maggie-rengana itzuli zen.  
 EGIA     GEZURRA
7. Ilunabarra zen eta kaleetako argiak itzalita zeuden.  
 EGIA     GEZURRA
8. Jimmie kalean zebilela andra bat hurbildu zen eta elkarrekin joan ziren.  
 EGIA     GEZURRA
9. Jimmie etxera heldu zenean ama oihuka aurkitu zuen, Maggie etxean zegoen.  
 EGIA     GEZURRA
10. Amaren oihu larriek Hurrado de Amezaga kaleko auzo guztien arreta erakarri zuen.  
 EGIA     GEZURRA
11. Maggie etxean zegoen iskanbila eta Jimmie-ren laguntza ez zeukala ikusita, burua biratu eta hanka egin zuen handik.  
 EGIA     GEZURRA
12. Bere auzokide batek aterpe eman zion gau hura pasatzeko.  
 EGIA     GEZURRA



## GRAMATIKA

1. Bai emakumeak bai gizonak gogotik edaten eta erretzen ari ziren” (83.orrialdean)  
 “Geroago, afro-amerikarrak eta italiar etorkinak ere kokatu ziren bertan. Eta bai batzuek eta bai besteek hainbat gang edo gaizkile talde antolatu zuten” (87.orri.)  
 “ ...baina minutuek aurrera egin zuten erlojuan eta ez Pete eta ez Nellie ez ziren itzuli” (88.orrialdean)

**BAI...BAI...** Esaldi mota hauetan, bigarren perpausak  
**EZ...EZ...** aurrekoak esandakoari zerbait gehitzen dio

Jar itzazu esaldiak beste era batera:

- Nerea lotsagabe galanta da baina June ez da atzean geratzen

---

- Haiekin beti gezurretan dabil eta gurekin ere bai

---

- Ez dugu erosiko, ezta jango ere

---

- Gaztetan tabako beltza erretzen genuen eta gorria ere bai

---

- Ondo porta zaitetz gurasoekin eta irakaslearekin

---

- Ez naiz hondartzara joaten eta mendira ere ez naiz joaten

---

2. “Zubiek garrantzi handia eduki zuten hasieratik New Yorkeko historian, barrutiak eta auzoak lotu zituztelako” (80.orrialdean)  
 “Nahita ere, inork ezin izango zuen haien musika entzun, aretoan berbaro handia zegoelako” (83.orrialdean)

**ASKO/GUTXI:** Izen zenbakarriekin erabiliko ditugu.

Izen zenbakaitzekin zenbait adjetibo bikote erabiliko ditugu:

**HANDI/TXIKI:** bero, hotz, gose, min, lotsa, egarri, gorroto, su, ke, kakagura,....

**LUZE/LABUR:** denbora, bide, soka.....

**GOGOR/LEUN:** haize, euri, azal, aurpegi.....



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



Jarri dagokiona:

- Buruko min \_\_\_\_\_ daukat
- Ez daukat gogo \_\_\_\_\_
- Bide \_\_\_\_\_ daukagu oraindik egiteko
- Kontu \_\_\_\_\_ ibili behar dugu
- Lagun \_\_\_\_\_ egin ditu hirian
- Erraztasun \_\_\_\_\_ dauka ikasteko
- Hotz \_\_\_\_\_ egiten du Islandian
- Denbora \_\_\_\_\_ daramat zure zain
- Gaur gauza \_\_\_\_\_ egin ditut
- Horrek azal \_\_\_\_\_ dauka



## MINTZAMENA

Atal hauetan protituzioa aipatzen da. Komentatu ondorengo galderak taldeka:

1. Prostituzioa munduko lanbiderik zaharrena omen da, zer deritzozu?
2. Prostituzioa legeztatzearen alde ala aurka zaude?
3. Amnsterdameko auzo gorria ezagutzen duzu?
4. Betidanik adineko gizonak izan dira bezeroak, baina gaur egungo bezeria gazteagoa da.  
Zer deritzozu?
5. Luxuzko prostituzioa existitzen da?
6. Engainatutako etorkin asko prostituzioan murgilduta daude, arazo larria da.  
Badauka konponbiderik?
7. Prostituzio-etxeak, prostituzio-pisuak... badaukazu baten bat zure etxetik hurbil? Eta izango bazenu inporta izango litzaizuke?



## **16. 17. 18. ETA 19. ATALAK**



### **ULERMENA**

Aukera ezazu erantzun zuzena:

- Petek ez zuen uste Maggieren egoeraren errua berari egotzi behar zitzaionik.
  - Berak oso garbi esan ziolako lagunak zirela.
  - Bera oraindik maiteminduta dagoelako
  - Bere ustez, ama eta neba ziren neskaren egoeraren errudun bakarrak.
- Peteren ugazaba oso gizon haserrekorra zen eta, seguru asko, kalera bidaliko zuen,
  - Maggie utziz gero
  - Beste borroka bat suertatuz gero
  - Eskandalurik gertatuz gero
- Petek behin eta berriro esaten zion Nellieri, Maggierekin .....ibiltzen zela.
  - laguntzeagatik
  - diruduna zelako
  - ondo pasatzeagatik
- Maggie Peteren tabernara hurbildu zenean..
  - Petek kafea hartzera gonbidatu zuen
  - dirua eman zion hotel batean gaua emateko
  - tabernatik bota zuen, ez zuela berriro ikusi nahi esanez
- Etxe lorategidunez osatutako auzo dotore batera heldu zen. Han...
  - seguruago sentitu zen
  - tristeago sentitu zen
  - etxean bezala sentitu zen
- Bat- batean apaiz batekin topo egin zuen, bihotz oneko gizona zelakoan hurbildu zen babes bila...
  - moja etxe batera lagundu zion
  - jaramonik egin gabe , bere bidea jarraitu zuen
  - kapela kendutakoan Jimmie zela konturatu zen
- Jendea antzokietatik pozik ateratzen zen, euria egin arren
  - penak ahazten diren lekutik zetozelako
  - antzerkia oso ona izan zelako
  - artista ezagun bat hirian zegoelako
- Neska bat antzokitik hurbil zebilen, gizon gazte batek urrunetik interesa erakutsi zuen baina hurbiltzean..... konturatu zen.
  - neska ezaguna zela
  - ez zela Paristik heldutako artista bat
  - bere gaztetako amodioa zela
- Maggiak gizona ...
  - jateko dirua eskatzen zien
  - limosna eskatzen zien
  - berarekin egoteko proposamena egiten zien





# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



10. Pete Nellierekin eta beste neska batzuekin taberna batean mozkorraren mozkorrez lurrera erori zenean...
  - a. Nelliék Peteren dirua hartu, kolkoan gorde eta lagunekin ospa egin zuen.
  - b. Nelliék ordurako bazekien maiteminduta zegoela Peterekin eta etxera eraman zuen.
  - c. Petek lo egiten zuen bitartean haiek edaten eta hitz egiten jarraitu zuten.
11. Azkenean
  - a. Maggie hil egin zen
  - b. amaren etxera bueltatu zen
  - c. Peterekin ezkondu zen
12. Amak hori jakin ostean...
  - a. Edateari utzi zion
  - b. Elizkizunak prestatu zituen
  - c. burua galdu zuen



## GRAMATIKA

- I. “Beraren ugazaba oso gizon haserrekorra zen eta, seguru asko kalera bidaliko zuen, eskandalurik gertatuz gero.” (95.orr)  
"Norbaitek zalantzan jarritz gero berak neska kontuan zeukan gustua, neska harekin ondo pasatzeagatik ibiltzen zela esaten zuen beti" (96.orrrialdean)

**-Z GERO /EZEAN:** Baldintzak. Baiezkoetan -z gero erabiliko dugu eta ezezkoetan ezean. Edozein dendoratan erabil ditzakegu, ondorioak esango digu zein denboratan dagoen esaldia.

- Nik erosten badut, hau erosiko dut.  
Nik erosiZ GERO, hau erosiko dut.
- Nik erosiko banu, hau erosiko nuke.  
Nik erosiZ GERO, hau erosiko nuke.
- Nik erosten ez badut, etxean geratuko naiz.  
Nik erosi EZEAN, etxean geratuko naiz.
- Nik erosiko ez banu, etxean geratuko nintzateke.  
Nik erosi EZEAN, etxean geratuko nintzateke.

Berridatz itzazu ondoko esaldiak -z gero edo ezean erabiliz:

- Lanean hasiko banintz, laster kotxe berria erosiko nuke.
- 

- Etxe bat erosten ez badugu, ezin izango gara elkarrekin bizi.
-



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



- Eguraldi ona ez badugu, etxean geratu beharko dugu.

---

- Dirurik edukiko ez balute, ezin izango lukete zorra ordaindu.

---

- Ikasten hasiko banintz, beste herrialde batera joango nintzateke.

---

- Eguraldi ona egiten badu, mendira joango gara.

---

Berridatz itzazu ondoko esaldiak -z gero eta ezean kenduz:

- Nire autoa erabiliz gero, egunero eramango zintuzket.

---

- Zure deirik jaso ezean, hemen geratuko naiz.

---

- Txokolatea erosiz gero, jan egingo dugu eta ez zaigu komeni.

---

- Kafe gehiago hartuz gero, urduriago jarriko zinateke.

---

- Mutila goiz etorri ezean, bakarrik joango nintzateke.

---

2. “Euria goian behean ari zuen, baina haiek hantxe jarraitzen zuten, zuhaitzen azpian babestuta, beste aterperik ez zeukatenez gero. (100.orr)

Egitura hau aditz laguntzaile edo trinkoari **-NEZ GERO** erantsiz eratzen da, eta **-LAKO-k** baino kausaltasun-maila apalagoa adierazten du.

Berridatz itzazu esaldiok -NEZ GERO forma erabiliz:

- Etxera eraman behar izan zuten, gehiegi edan zuen eta.

---

- Eskatu zidan mesedea egin nion, oso neska jatorra baita.

---

- Zinemara joango gara, etxeko telebista hondatu zaigu eta.

---



# Maggie, kaleko neska bat Lanketa didaktikoak



- Asteburuan kanpora joango gara, eguraldi ona iragarrita baitago.
- 

- Beherapenetan gauza asko erosi ditut, loteria suertatu zitzaidan eta.
- 

## Berridatz itzazu esaldiak -NEZ GERO formak kenduz:

- Nik mendiko botarik ez daukadanez gero, ezin izango naiz mendira joan.
- 

- Mikelek Ana ezagutzen ez zuenez gero, ez zuen agurtu.
- 

- Ikasgai guztiak gainditu dituzunez gero, aurren bi hilabete opor izango dituzu.
- 

- Datorren urtean ezkondu nahi dudanez gero, mutil laguna topatu beharko dut.
- 

- Atzo ogia erosi ez nuenez gero, gaur bimbo jan behar izan dut.
- 

3. “...ez zegoen inoren arima salbatzeko prest, Jainkoaren legeak hala agindu arren”  
(98.orrialdean)

“..., nahiz eta antzokien inguruan egon, ez zela Paristik heldutako artista bat.”  
(101.orrialdean)

### **KONTZESIBOAK:**

- NAHIZ ETA + partizipioa edo aditz jokatua +(e)N  
Nahiz eta eguraldi txarra egin (ez)/ egiten (ez) duEN, hondartzara joango naiz.
- Partizipioa edo aditz jokatua + (e)N + ARREN  
Eguraldi txarra egin (ez)/ egiten /ez) duEN arren, hondartzara joango naiz.
- BA..ERE: Adizki jokatuarekin bakarrik erabiltzen da  
Eguraldi txarra egiten (ez) badu ere, hondartzara joango naiz.

### Berridatzi esaldiak:

- Oso nekatuta nagoen arren, gimnasiora joango naiz.
- 

- Nahiz eta egunkaria erosi, ez dut irakurtzen.
-



# Maggie, kaleko neska bat

## Lanketa didaktikoak



- Ezer esaten ez badu ere, badakit zer ari den pentsatzen.

---

- Mikel ezagutzen dudan arren, beti harritzen nau.

---

- Nahiz eta hamar orduz lo egin, oraindik logura da.

---

- Ezkontzara gonbidatu bagaitu ere, ez gara joango.

---

#### 4. “Trago gehiago ekartzeko eskatu zion.” (106.orrialdean)

### **ZEHAR AGINTERA**

Aginte-perpausak direnean aditz jokatugabeekin -TZEKO erabiltzen da.

“Etorri hona” agindu du amak.

Zer esan du amak? Etortzeko hona esan du amak.

Berridatz itzazu ondoko esaldiak:

- “Etxerako lanak egin, mesedez” . Zer esan du?

---

- “Biharko ekarri hain ondo egiten duzun sagar-tarta.” Zer esan du?

---

- “Eutsi goiari, Mikel”. Zer esan du?

---

- “Bukatu eta eraman azkar bulegariari”. Zer esan du?

---

- “Kontatu zer esan zizun atzo Anak ”. Zer esan du?

---



5. “Nellie, zuk badakizu guztiz maiteminduta nagoela zutaz eta edozer egingo nukeela zu lortzeagatik. (107.orrialdean)  
“Norbaitek zalantzan jarriz gero berak neska kontuan zeukan gustua, neska harekin ondo pasatzeagatik ibiltzen zela esaten zuen beti” (96.orrialdean)

**-T(z)EAGATIK: ZERGATIK?** galderari erantzuten dio eta, gehienetan galdegaia izaten da.

Berridatz itzazu ondoko esaldiak:

- Tren geltokia non zegoen galdetu ez zuelako ailegatu zen berandu.

\_\_\_\_\_

- Informatikaz asko dakielako eman diote lanpostua.

\_\_\_\_\_

- Ariketak gaizki egin dituzuelako errepikarazi dizkizue irakasleak.

\_\_\_\_\_

- Beti berandu heltzen delako dauzka haserre.

\_\_\_\_\_

- Dantzari trebea delako joan da Parisa lanera.

\_\_\_\_\_

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

- Zergatik zigortu ditu amak? \_\_\_\_\_
- Zergatik bota dituzte lanetik? \_\_\_\_\_
- Zergatik argaldu zarete hainbeste? \_\_\_\_\_
- Zergatik erosi duzu kotxe berria? \_\_\_\_\_
- Zergatik ez zintuzten abesbatzan hartu? \_\_\_\_\_



6. “Hilzorian dagoen txakurrari bezala begiratzen zioten.” (110.orrialdean)

**BEZALA:** Hauxe dugu egiturarik erabilena moduzko perpausak egiteko.

- Zuk ondo egin duzu, nik ondo egin dut.  
Nola egin duzu?  
Zuk nik (egin dudaN) BEZALA egin duzu.
- Zu altua zara, ni altua naiz.  
Nolako zara?  
Zu ni (naizeN) BEZALAKOA zara.

Erantzun ondoko galderak parentesi artean dagoena eta BEZALA erabiliz:

- Nola egiten dituzu etxeko ariketak? (bururatzen zaizkit) \_\_\_\_\_
- Nola gertatu zen istripua? (esan dute) \_\_\_\_\_
- Nola portatzen zara? (agindu didate) \_\_\_\_\_
- Nola tratatzen duzu jendea? (merezi du) \_\_\_\_\_
- Nola ibiltzen dira umeak? (bere gurasoak) \_\_\_\_\_
- Nola hitz egiten dute loritoek? (jabeak) \_\_\_\_\_
- Nolakoak dira bere belarriak? (elefantea) \_\_\_\_\_
- Nolako da bere irrifarra? (ama) \_\_\_\_\_
- Nolako da bere ilea? (zeta) \_\_\_\_\_
- Nolakoak dira zure begiak? (izarrak) \_\_\_\_\_
- Nolako da zure irakaslea? \_\_\_\_\_
- Nolako eduki nahi duzu? \_\_\_\_\_



**MINTZAMENA**

Atal hauetan pobrezia agertzen zaigu. Komentatu zuen artean ondoko galderak:

1. Pobrezia aipatzen dugunean urrutiko gauza batez ari garela dirudi, baina badago pobreziarik gure inguruan?
2. Non dago 4. mundua deiturikoa?
3. Klean jendea lo egiten ikusten duzunean, zer pentsatzen duzu? Zer sentiarazten dizu?
4. Klean gabiltzanean beti aurki dezakegu pertsonaren bat eskean, dirua ematen diezu? Zergatik?